

B

BARREN

Euren txikian, handi

Asier eta Aitor Urain, eta Ibon Beristain





Upaiz zaharra, 14
Tel.: 943 741 552 / 606 431 120
www.biokdekorazioa.com
biokdekorazioa@euskalnet.net



- Erreminta desberdinak
- Pintura
- Berehalako koloreak
- Margotutako paperak
- Mihiseak
- Olio-pinturak

- Estoreen gama zabala
- Gortina tolestuak
- Gortina beneziarrak
- Behar mota guztietarako



iturgintza

GOKI

ERREFORMAK



OBRAK FINANTZIATZEN DITUGU

Pedro Muguruza etorbidea, 11 behea - 20870 Elgoibar - Tel.: 943 254 522

Eskerrik asko

Gaueko 23:30ean iritsi ziren poliziak gure etxera. Aita esposaturik zutela, zortzi edo hamar kaputxadun sartu ziren etxera epailearekin batera. Etxea miatzeko baimena zutela esan ziguten, eta aita besarkatzera joan ginenean, inkomunikatuta zegoela eta ezin genuela berarekin hitz egin esan zigun Poliziak. Hau bai hau, aitarekin etxean eta ezin berarekin hitz egin eta ezin besarkadarik eman. Poliziak etorri baino lehenago kanpora begiratu genuen; nik neuk, eta etxean zeuden amak eta arrebak. Kanpoan sekula entzun



dudan isiltasun handiena zegoen: jendea balkoietan, argia itzalita eta beldurrarekin, kristoren beldurrarekin eta inpotentziarekin. Nahi dutena egiten dute, amak eskuetan dauzkatela. Behean elkartasuna adierazteko bildu ziren herritar batzuk kolpatzera ere iritsi zen Polizia. Miaketa oso gogorra eta luzea izan zen. Hiru ordutan etxe guztia hankaz gora ipini zuten: liburu guztiak begiratu zituzten, paperak eta familiako argazki guztiak eraman zituzten, bi ordenagailuren disko gogorrak ere bai, kamera digitalen memoriak, hormetako koadro eta argazkiak kendu eta bota zituzten. Dena botata laga zuten. Goizeko 2.30ean alde egin zuten.

Orain politika egitea ere ilegala da, orain arazo politiko bati irtenbide politikoa ematea ilegala da. Baina oraingoan oso agerian geratu direla uste dugu: Euskal Herrirako bakea lortzea ez zaie komeni! Gauden egoeran erosoago daudela agerian geratu da. Bukatzeko, eskerrik beroenak eman nahi dizkiot Elgoibarko herriari, une hauetan eman diguten babesagatik, eta baita Donostiako manifestazioan parte hartu zuten milaka eta milaka pertsoneri. Bertan fisikoki egon zirenei eta bihotzez egon zirenei ere bai. Herriak bat eginda emandako erantzuna izugarria izan zen.


Mila esker!

Hodei Otegi

**“Eskerrik beroenak Elgoibarko herriari,
une hauetan eman diguten babesagatik”**

“Sumendien Himalayan” inoiz egin gabeko zeharkaldia osatu du **ALEX GARATEK**

**Bere bizipenak
web gunean
jarri ditugu**



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net



MOTOR GOSEZ



Aitor Urain, Ibon Beristain eta Asier Urain.

Lau oinetan ibiltzetik motor gainera ia-ia. Gasolina usain artean hazi dira Ibon Beristain, eta Aitor eta Asier Urain anaiak. Gurasoengandik jaso zuten motorrerako zaletasuna, eta begiak argitzen zaizkie orain motocrossa aipatzearekin batera. Motocrosseko atarietan etorkizun handiko pilotutzat jotzen dituzte, eta ez da harritzekoa, orain arteko ibilbideari erreparatuz gero. Ibonek eta Asierrek 9 urte dituzte, eta Aitorrek, 12 baino ez, baina dagoeneko punta-puntan ageri dira bateko eta besteko sailkapenetan. Asier eta Ibon bihar BECen jokatu den supercross txapelketan izango dira. Europako txapelketa da berez biharkoa, baina Ibonek eta Asierrek jokatu dutena ez da proba puntuagarria, erakustaldia baizik.

Ainara Argoitia

Beristaindarraren bulegoan sartu eta segituan jabetzen da bat motocrosserako bi-zi direla. Badira zirkuitoetako dozena erdi argazki, mahai gainean zein hormetan zintzilik. Ezkerreko horman, salto ikusgarri baten argazkia ageri da, eta mahai gainean, lasterketen egutegia eta motorzale jantzitako hiru bat umeren argazkia. “Ezkerreko hori nire semea da, Ibon. 4 urte zituen hor”, argitu digu Iñaki Beristainek.

Ibon Beristainek 9 urte ditu orain, eta Euskadiko Motocross Txapelketan bigarren da sailkapen nagusian, alebin mailan –Azaroaren 7an jokatu da Euskadiko txapelketako azkeneko proba, Langraitzen–. Gertutik segitzen du sailkapenean Asier Urain lehengusuak. Aitor hiru urte zaharragoa da, eta jubenil mailan lehiatzen da gaur egun. Motocrossak liluratuta ditu, eta horren erakargarri zergatik zaien erantzute-

an, bat etorri dira hirurak: “Abiadura gustatzen zaigu, eta oso dibertigarria da.

“Bizikletan bi gurpiletan ibiltzen ikasi aurretik ikasi nuen nik motorra gidatzen, 4 urterekin”

IBON BERISTAIN

Bizikletan hasteko adinean, motor gainean zebiltzan hirurak. “Nik bizikletan bi gurpiletan ibiltzen ikasi aurretik ikasi nuen motorra gidatzen. 4 urterekin hasi nintzen motorrean, eta 5ekin ikasi nuen bizikletan ibiltzen”, aitortu du Ibonek. Ordutik, ia astebururo izan dute lasterketaren bat. 50 zentimetro kubikoko Yamaha Piwi batekin hasi

ziren, baina gaur egun, 85 zentimetro kubikoko KTM bat gidatzen du Aitorrek, eta 65 zentimetro kubikoko KTM bana Asierrek eta Ibonek.

Astean zehar, eskubaloian, saltaka eta futbolekin jarduten dute ikastolako lagunekin, baina barixakua iristen denean, motorrak hartu, eta batetik bestera ibiltzen dira. “Lasterketarik ez dugunean, entrenatzera joaten gara, kanpora gehienetan”, dio Asierrek. Entrenamendu guztiak motor gainean egiten dituzte. Zaletasun horri eutsiz gero, aurrerago, pesak-eta egin beharko dituzte, baina momentuz oso gazteak dira, eta entrenamendu mota horiek legez kanpokoak dira adin hauetako umeen kasuan”, gaineratu du Aitorrek, Asier eta Aitorren aitak.

Urtean oso asteburu gutxitan gelditzen dira Elgoibarren. 40.000 kilometro inguru egiten dituzte karabana hartuta, zirkuitutik

zirkuitura. Egutegia hartu du esku artean lñakik, eta aurtengo erreposoa egin du. “Boda nuen egun bat, eta maiatzaren 10a, semearen jaunartze eguna. Oso asteburu gutxi libratu ditugu. Olbango (Katalunia) lasterketa galdu genuen jaunartzeagatik, oso lasterketa ederra”, dio umorez.

“Bost edo sei karabana ibiltzen gara, batetik bestera, eta lagun asko egiten ditugu”

AITOR URAIN

Euskal Herrian bertan ibiltzen dira gutxi. “Afizio handia egon arren, hemen apenas dagoen zirkuiturik. Inguru honetan zaila da, gainera, zirkuituak egoera onean mantentzea. Eguraldiak ez du gehiegi laguntzen, eta zirkuituaren mantenimendu lanak oso garesti irtetzen dira”, zehaztu du. Katalunian izaten dituzte lasterketa gehien, baina Espainia ere alderik alde zeharkatuta dute. Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Errioxa... Hasi ere, Errioxako lizentziarekin hasi ziren Euskal Herriko txapelketan lehiatzen, hemen baimena lortzeko gazteegiak zirelako artean. Ibonek eta Asierrek 5 urte baino ez zituzten.

Aurten, hala ere, estatuko mugak ere gaintu zituzte. Bigarren urtez jarraian, Belgikan izan ziren uztailean hiru gaztetxoak, Master Kid mundu mailako txapelketan. 6 eta 15 urte bitarteko milatik gora umek parte hartu zuten txapelketa hartan, eta Txusko motoklubak eta MC Tres Turons kataluniarrak osatutako taldearen eskutik joan ziren Aitor, Asier eta Ibon. Ibon eta Asierren mailan, alebinetan, 106 ume irten ziren, eta hemezortzigarren gelditu zen Ibon, eta 43. Asier. Aitorrek ere parte hartu zuen, jubenetan, eta 38. egin zuen. Taldeka, hamargarren gelditu ziren. “Oso pozik itzuli ginen handik. Maila handia izaten da han, baina gu ere ez ginela atzean gelditzen erakutsi genuen”, adierazi du lñakik.

Dena ez da, baina, lehia. Kirolaren gaitetik, Motocrossa bizitzeko era bat dela dio lñakik, “filosofia bat”. Eta modu horretan baino ezin da ulertu astebururo-astebururo egin behar izaten dituzten atzera-aurrera

guztiak: “Campingeko bizimodua egiten dugu guk, eta karabana gure etxea balitz moduan egokitu dugu. Etxean bertan baino aukera gehiago ditugu, pentsa!. Beste modutan ibiltzen ginen gu gaztetan, laneko furgoneta hartuta. Orain oso eroso da. Hori bai, bost gradu zero azpitik egiten duenean ere han egon behar izaten da!”. Lasterketetara joan eta behin eguneko lanak bukatutakoan, karabanaren bueltan biltzen dira. “Bost edo sei karabana ibiltzen gara elkarrekin, batetik bestera, eta lagun asko egiten ditugu”, dio Aitorrek. “Ikuste-koa da zein ondo moldatzen diren zirkuituan aurkari dituztenekin”, gehitu du Ibonen aitak.

Ezin esan, ordea, Aitorrek, Asierrek eta Ibonek motokrossa jolas moduan hartzen dutenik. Gailurra sarri jo duten arren, gora begiratzen dute. Euren kategorian gazte-txoenetakoak dira Asier eta Ibon, baina ez ditu horrek kikiltzen. Sarri hartu diete aurea euren baina zaharrago direnei, eta oraindik beste bi urte gelditzen zaizkie, kategoria horretan lehiatzeko. Okerrik ezean, baina, Ibonek eta baita Aitor lehengusuak ere denbora baino aurretik egingo dute salto goragoko kategorietara, motorra txiki gelditzen ari zaielako.

“Nahi, nahi... Travis Pastranaren pare izan nahiko nuke, baina...”

ASIER URAIN

Lorpen zerrenda handia dute, eta horren sekretua entrenamenduetan dagoela dio Ibonek. “Gogor entrenatzen dugu. Bihurguneetan aurrean jartzen dugugu, horixe delako ondo entrenatzea. Ez du balio irten eta atzetik ibiltzeak”, azaldu digu heldutasun handiz. Stewart eta euren mailan zerrenda buru direnak ditu erdutat Aitorrek, Yeray Zuazabal, esaterako. Zeinen pare izan nahiko luketen galdetean, baina, Asierrek zalantzarik egin gabe bota du: “Nahi, nahi...Travis Pastranaren pare izan nahiko nuke, baina...”. Denborak esango du, baina ezin ukatu bide onetik doazenik.



Ibon Beristain.



Aitor Urain.



Asier Urain.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Mila esker, guztioi

Errosario kaleko jaiak umore onean bizi izan ditugu aurten ere. Dena ondo irten zaigu, eta horregatik eskerrak eman nahi dizkizuegu. Batetik, eskerrik Udalari diru-laguntzak emateagatik, hori gabe oso zaila izango baitzen jaiak antolatzea. Kaleko bizilagunak ere eskertu nahi ditugu, eurek ere dirua ematen dutelako, eta lan handia egiten dutelako. Azkenik, antolatutako ekintzetan parte hartu duten herritar guztiei ere, mila esker. Giro paregabea izan da, eta hainbat ekintzatan eguraldiak gehiegi lagundu ez badu ere, jende asko ibili da. Datozen urteetan ere zuen laguntza izango dugulakoan, eskerrik asko guztioi.

Errosario kaleko jaien
antolatzaileak ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano
MAKETATZAILA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza.
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Ane Odria

Aupa, Maialen!
Zer moduz hasi dugu ikasturte berria? Hasi gara martxa hartzen? Hasi beharko, ezta?

Zer erremedio! Gezurra

dirudi, baina bai, laugarren ikastur-

tea daukagu ate joka. Zure laugarrena Medikuntzan eta nire laugarrena Euskal Filologian. Zelako aldeak karrera batetik bestera! Batak gorputza oinarri eta besteak hizkuntza. Jatorriari begiratuta ere, ezin bateratu Medikuntza eta Euskal Filologia; aspaldikoa da zure ikasketen jatorria, ez ordea, nireena. Izan ere, gaur egun gauza normalizat hartzen dugu Euskal Filologiaren ikasturte berriaren hasiera, baina ez zen horren normala izan 1976an. *El próximo curso comienza la Filología Vasca en la Universidad de Deusto*, halaxe esan zuen argi eta garbi aspaldian herritarron ahotan dabilen Gotzon Garatek.

“Pozik nago, Gotzonek merezi zuen moduko omenaldia egiten ari zaiolako herria”

Oso garbi ikusi zuen Gotzonek euskara ezin zitekeela gainerako hizkuntzak baino gutxiago izan eta asko zuela aztertzeke eta lantzeke. Esan eta egin, Euskal Filologia sortu zuen. Burugogorra ei zen Gotzon, bere ideietan bene-benetan sinesten zuen eta horiek aurrera eramateko gai izan zen kosta ala kosta. Zelan ez da ba gizon miresgarria izango! Pozik nago, Maialen, Gotzonek merezi zuen moduko omenaldia egiten ari zaiolako herria, baina are gehiago poztuko nintzateke Gotzonen aldarrikapenak omenaldi hutsean geratuko ez balira. Argi zeukan Gotzonek: *ez dago euskararik gabeko Euskal Herririk, euskara galduz gero, dena galdu dugu*. Ea berak bezain burugogor jarraitzen dugun guk ere! Ez dut uste eta, horrelakoetan, behintzat, burugogorkeriak kalte handirik egiten duenik.



Maialen Olazabal

Kaixo, Ane! Udazkenarekin batera kurtso berria, zozoak beleari, haize hotza... denak etorri zaizkigu batera, oharkabean. Gogorra izango da aurtengo laugarren kurtso hau, baina orain arte egin badugu aurten ere egingo dugu, ezta? Eta kurtso honetako lehen zozoak beleari honetan zein eta Gotzon Garate gure hizpide. Behin izan nuen bere hitzaldi bat entzuteko beta, eta gogoan ez baditut ere berak esandako guztiak gauza bat ez zait ahaztuko: euskararekiko zuen maitasuna eta miresmena.

Ikusi dut bai Elgoibarren ekitaldi mordoak egiten ari direla bere omenez eta BARRENen ere behin baino gehiagotan irakurri dut bere inguruan idatzitako konturik. Nire aitonari entzun izan diot hil eta geroko omenaldiak asko direla, baina omenaldiak bizirik daudela egin behar direla, benetan jendeak ikus dezan zure lan eta esfortzuak baduela ondorenik. Gotzonen kasuan hori ezinezkoa bada ere, bere oroimena bizirik da bai Elgoibarren baita Euskal Herriko beste txoko askotan ere. Eta ziur nago berarentzat omenaldirik onena denok ahoz aho euskara erabiltzea izango litzatekeela.

“Nire aitonari entzun izan diot omenaldiak bizirik daudela egin behar direla”

Ez dakit Elgoibarrek omenaldi hori egiteko sekula aukerarik izango duen, baina, ziur nago berak bakarrik ez, beste askok ere eskertuko luketela hori horrela balitz. Eta ados nago zurekin, Ane, horrelakotan burugogorkeriak ez du kalterik egiten, mesede baizik. Gauzak lortzeko olatu, marea eta haize zakarren kontra borrokatu beharra dago, eta hori guztia gainditzeko zerbaiten beharra bada.



Elgoibarko Udala



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Trenbideko mantenu obrak amaitzear daudela jakinarazi dute Eusko Trenbide Sareak enpresako arduradunek

Lan horien ondorioz, estazio inguruko bizilagunak lo egin ezinik egon dira

Urriaren 5ean hasi zituzten trenbideko mantenu obrak, hariak eta egurrezko trabesak berritzeko. Lan horiek gauz egin dituzte, eta estazio inguruko bizilagunak lorik egin ezinda egon dira azken asteotan. BARREN astekaria Eusko Trenbide Sareak enpresako arduradunekin jarri da harremanetan, eta lanak amaitzear daudela adierazi dute. Euren esandakoaren arabera, datorren astean ez dute lanik egingo, baina azaroaren lehenengo astean bai. Hiru egunetan makina bateatzailea pasatuko dute, trenbideari azken ikutuak eman eta bere lekuan kokatzeko. Makina horrek zarata handia egiten duela adierazi dute; “baina egin beharreko lana da”, gaineratu dute. Badakite gauz lan egiteak kalteak eragiten dituela, baina euren ustez, kalte gehiago sortzen dira egunez, tren zerbitzua eten egin behar delako.



Ezker Abertzalekoek Hirigintza Plan Orokorra kritikatu dute



Elgoibarko Ezker Abertzalekoen iritziz, “etxebizitza politika basatian” eta industriagune berrietan oinarrituta dago Udalak egin duen Hirigintza Plan Nagusia. Euren esanetan, Elgoibarren 600 etxe inguru hutsik daude, eta ez dago etxe gehiago eraikitzeko beharrik. Bestalde, Plan Nagusia egiterakoan, Udalak hainbat gai kanpoan laga dituela uste dute, eta txostenari “konkrezioa” falta zaiola. “Kasko historikoaren plan bereziari buruz ezer gutxi esaten da, Plaza Txikian zer egingo duten ez dute zehazten, frontoia non joango den ez dakigu, kiroldegia handitu, berritu ala hobetu egingo duten ez dakigu, Osasun Zentroa lekuz aldatuko duten edo ez, merkataritza indartzeko plana falta da, Pilar ikastetxean zaharrentzako zentroa egiten dutenean San Lazaro egoitzarekin zer egingo duten ez dute esaten, oztopo arkitektonikoak hor jarraitzen dute...”. Ondorio bezala, enpresari eta konstruktoreen nahietan oinarritutako plana dela esan dute Ezker Abertzaleko kideek, eta euren ustez, elgoibartarren ongizatea eta beharrak alde batera laga dituzte.

30+10 mintegia egin dute IMHn laugarren urtez

Erreminta Makinaren Institutoak enpresetako hizkuntzen kudeaketari buruzko 30+10 mintegia egin zuen atzo, urriaren 22an. Enpresen emaitzak hobetzeko, hizkuntzak nola kudeatu behar diren azaltzeko hamabost hitzaldi eskaini zituzten adituek. Aurten, gainera, horietako bost hitzaldi ikasteko web gunetik zuzenean jarraitzeko aukera izan zen. Partaideen artean, besteak beste, Adegi, ITP, Fagor, Don Bosco, Kutxa, Caja Navarra, HPS, EMUN, Elhuyar, Artez, Txekiako Charles University, eta Kataluniako UOC enpresetako ordezkariak izan ziren. Guztira ehun lagun baino gehiagok hartu zuten parte mintegian.



Izena **Uxue Alberdi**



Uxue Alberdi Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekoetarako sailkatu da. Final laurdenetako saio bakoitzeko irabazleak zuzenean sailkatu dira final erdirako, eta eurekin batera, puntuazio gehien lortu duten beste 11 bertsolari pasatu dira hurrengo fasea, tartean Uxue Alberdi. Elgoibartarrak estreinakoz hartu du parte aurten Euskal Herriko bertso txapelketan, eta Zestoako kanporaketan bigarren postua eskuratu zuen 660 punturekin.

Zenbakia **6.160**

Miski elkarteak 6.160 euro lortu ditu aurtengo kanpainaren lehenengo zatian. Erri-fen salmentarekin 5.360 euro eskuratu dituzte, eta gainontzekoa diru-laguntza baten bidez. Gemma Agirregomezkortak azaldutakoaren arabera, iaz baino 640 errifa gutxiago saldu dituzte kanpainaren lehenengo partean. Hilabete honetan jarri dute martxan bigarren zatia, herriko ikastetxeen laguntzaz. Bi sari zozketatuko dituzte: Eroskik emandako Gabon otarra eta Donostiako Londres hotelean gau bateko egonaldia. Miskiren proiektuak 32.000 euroko aurrekontua du, eta kopuru horretara iristea da elkartekoen helburua.

Lekua **Olasoko hilerria**

Olasoko hilerriko sarrerako arkuan azaldu ziren pitzadurak konpontzeko lanak hasi dituzte. Lanen arduradunak esandakoaren arabera, horrelako eraikinetan pitzadurak agertzea ohikoa da. 1459koa da arkua, eta Sigmako errotondako obren ondorioz kalteak jasan ditu. Azaroaren 1ean Domusantu eguna izango da, eta ordurako konpontzea espero dute.



Baserritar Gazteen Martxa gaur helduko da

Azkarate gaina pasatu ondoren, traktore baten atzetik iritsiko da Baserritar Gazteen Martxa gaur arratsaldean Elgoibarrera. 19:00ak aldean helduko dira, eta ondoren, 19:30ean, baserritar gazteen esperimentziak elkartrukatzeko mahain-gurua egingo dute Kultur Etxean. Bihar goizean, Eibarrerantz abiatuko da martxa, eta hilaren 25ean amaituko da Durangon.

1969an jaio eta Ikastolan ikasitako bazkaria

1969an jaio eta Elgoibar Ikastolan ikasitakoek euren 40. urtebetetzea ospatzeko bazkaria egingo dute urriaren 31n. Interesatuak 50 euro sartu behar dituzte 2101 0036 66 0012438016 kontuan. Eguerdiko 13:30ean jarri dute hitzordua Usuako parkean, eta bazkaria 14:30ean izango da Sigma jatetxean. Informazio gehiago 619 121 332 (Maria Pilar) edo 656 722 415 (Lorea) telefonoetan.

Keinuen hizkuntza lantzeko ikastaroa

Gorrekien komunikazioa hobetu nahi dutenentzat keinuen hizkuntza lantzeko ikastaroa antolatu du Bergarako Udalak. Urtarrilean hasiko dira klaseak, eta bi maila egongo dira; hasierakoa eta sakontzekoa. Matrikularen prezioa 85 eurokoa da. Informazio gehiago eskuratzeko 943 762 703 telefonora deitu daiteke.

Aquariumera eta Kutxaespaziora irteera

Altzolako Zubibai elkarteak Donostiako Aquariumera eta Kutxaespaziora joateko irteera antolatu du domekarako. Goizez, zientziaren museoa bisitatuko dute, eta arratsaldean, itsasoko altxorrak ikusteko aukera izango dute. Autobusa 9:45ean irtengo da Altzolako autobus geltokitik, eta itzulera 19:00etan izango da.

ELGOIBAR ETORKIZUNERA BEGIRA

Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren aurrerapen txostena egin du Udalak. Bertan, datozen 15 urteetarako helburuak zehaztu dituzte, eta gure herriaren izaera eta bilakaera zein izango den azaldu dute. Hasierako proposamena Udalak egin du, baina herritar guztiak daukate txostenari buruzko iritzirik emateko eta ekarpenak egiteko aukera. Plan Nagusia ikusgai dago Antonio Arrillaga kaleko 6. zenbakian (sarrera Santa Ana kaletik), azaroaren 15era arte.

Ainhoa Andonegi

ZER DA HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA?

Hiri Antolamendurako Plan Nagusia udal lurraldea antolatzeko tresna da. Horren bitartez, lurzoria sailkatzen da, eta lurzoru mota bakoitzari dagokion araudia zehazten da. Horrekin batera, udalerriko ekipamendu sistemaren oinarriko elementuak zehazten dira. Prozesua luzea izango da, eta aldaketak ez dira egun batetik bestera emango. Udaleko arduradunek behin eta berriz eskatu dute herritarren parte-hartzea, planak herritar guztioi eragingo digula arrazoituta.

PLAN NAGUSIAREN FASEAK

Elgoibarko herriari buruzko arau subsidiarioen azken txostena 1992. urtekoa da, eta txosten hori eguneratzeko beharra ikusi zuten Udaleko arduradunek. Orain dela urtebete inguru hasi ziren datozen 10-15 urteetarako Plan Nagusia burutzen, eta dagoeneko, aurrerapen txostena egina dago. Izaskun Larzabal, udaletxeko arkitektoak azaldutakoaren arabera, Plan Nagusiak hiru fase nagusi ditu:

Ezkerreko irudian lurzoruaren katalogazioa Elgoibarko planoaren gainean.

Eskumako irudiko planoan ikus daiteke lurzoruaren erabileraren proposamena.



Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak hainbat alor biltzen ditu. Datozen bi orrialdeetan bildu ditu BARRENEk aurrerapen txostenean proposatu dituzten aldaketarik nabarmenenak. Horrez gain, beste hainbat aldaketa eta proposamen biltzen ditu txostenak. Nahi duenak udaletxean bertan edo www.elgoibar.org web gunean eskuratu dezake Plan Nagusia, eta azaroaren 15era arte dago ekarpenak egiteko aukera.

ETXEBIZITZA


Etxebizitzari dagokionean, hiru sektore berri aurreikusten dira: Urasandi Berri, Kamiñerokua eta Sigma. Guztira 800 etxebizitza berri egitea da proposamena, merkatu librekoak eta babes ofizialekoak. Udalak berriz ere gogorarazi nahi du hau guztia proposamen bat besterik ez dela, eta datozen 15 urteetan gauzatzeko asmoak direla. Izaskun Larzabal arkitektoaren esanetan, "proposamenak egiteak ez du esan nahi hori guztia gauzatu denik".

1. URASANDI BERRI: Deba ibaiaren alboan dauden enpresak eta lokalak botatzea proposatu dute, eta errepidearen beste aldean kokatuko liriteke negozio horiek, gasolindegia barne. Ingurune horretan 300 etxebizitza egingo liriteke; %40 babes ofizialekoak. Horrez gain, kultura edo osasun ekipamendu bat, aparkalekua eta parke bat egitea da asmoa. N634 errepidea zuzendu egingo lukete, eta Altzolarainoko bidegorria egitea au-


reikusten da. Maltzogatik Santa Ana kaleraino egin duten bidegorriak trenbide ingurutik jarraituko luke, eta Madalan bat egingo luke bidegorri berriekin.

2. KAMIÑEROKUA: Ermuaranbide kalean dago zona hau, eta "berritzeko beharra dauka", Udaleko arduradunen iritziz. Erreka alboan garbitu eta errepidearen beste aldean etxebizitza berriak egitea aurreikusten da. Egungo bizilagunek etxea izango lukete bertan, eta gainontzekoak salgai jarriko liriteke. Guztira 150 etxebizitza inguru eraikitzea aurreikusten da; %40 babes ofizialekoak. Parke bat eta haurtzaindegi edo eskolaurreko zentro bat egitea proposatzen dute. Helburua, jendeak autoa ahalik eta gutxien erabiltzea da, horretarako auzo bakoitzak bere ekipamenduak edukitzea komeni da.

3. SIGMA: Auzo honek duen behar handienetarikoa sarrera-irteera egokia dela azaldu du Izaskun Larzabal arkitektoak. Errotonda berriaren atzeko aldetik egokituko da auzorako sarrera berria. Bestalde, Sigmako sarreran dagoen zuhaitz-gunea aprobetxatuta jendea paseatzera edo korrika egitera joateko gunea sortu nahi dute. Herri gunetik irten eta berdegunea nahi duenarentzat gune "aproposa" izango dela adierazi dute Udaleko arduradunek. Sigman 350 etxebizitza inguru eraikiko dira, eta horietatik %75 babes ofizialekoak izatea aurreikusten da.



Planoan berdez markatuta ageri dira etxebizitza guneak. Ezkerretik eskumara izendatuko ditugu: Sigma (1), Ubitarte-Gain (2), Kamiñerokua (3), Urasandi-Berri (4) eta Urruzuno (5).



Plano honetan lurzoru industrialen proposamena ikus daiteke kolore arrosaz. Berdez ageri diren guneak lehen industruliaka ziren, eta aurrerantzean berdegune izateko proposamena egin dute. Laranja, aktibitate ekonomikorako guneak. Ezkerretik eskumara: Olasogain (1), Olasoate (2), Alkorta (3), Albitxuri (4), Lerun Txiki - Morterika (5), Karkizano (6), Arriaga (7) eta Arriaga 2-3 (8).

AKTIBITATE EKONOMIKORAKO GUNEAK

Izaskun Larzabal arkitektoak uste du sektore berriei lekua egiteko une egokia dela. Bere ustez, erreminta-makinaren alorra apur bat alde batera utzi behar da, eta gazteak animatu nahi ditu beste mota bateko enpresak martxan jartzera. Plan Nagusian aktibitate ekonomikorako guneen proposamena ere jaso dute. Hona hemen proposatutako hainbat aldaketa:

ALBITXURI: Gunea handitzeko aukera dago, eta Bernardo Ecenarro enpresari bertan geratzeko aukera eskaini diote. Azkoititik beste eskaintza bat egin diote Elgoibarko enpresari, eta urtarrilerako hartuko dute azken erabakia. Udalaren nahia enpresa Elgoibarren geratzea da, eta horretarako aukera eman diote.

LERUN TXIKI-MORTERIKA: Martxan dago ingurune honetan aktibitate ekonomikorako gune berria egiteko proiektua, eta Udaleko arduradunek jakinarazi dutenez, hainbat enpresek erakutsi dute bertan kokatzeko interesa. Udalaren proposamena Lerun Txiki-Morterika eta Karkizano elkartzea da.

ARRIAGA: Gune hau handitzea da Udalaren proposamena, Danobat Kooperatibari handitzeko aukera eskainiz. Bestalde, Azkarateko errepide berritik Arriagarako sarrera berri bat egitea aurreikusten da.

SALLOBENTE: Orain arte industrigune bezala izendatuta zegoen gunea, baina aurrerantzean berdegunea izango da. Alkorta eta IMHK handitzeko aukera izango dute, baina bestela, aisialdi-gunea izango da.



Albitxuriko industrigunea airetik ikusita.

Elgoibartarren bizi-kalitatea hobetzeko ikerketa bat egiten ari da Udala.

Bizitzeko herri aproposa iruditzen zaizu Elgoibar?



Nieves Fernandez
56 urte, etxeoandrea

Bai. Ni debarra naiz, baina 33 urte daramatzat Elgoibarren, eta oso gustura bizi naiz. Denetik dago, bizitzeko behar dudan guztia daukat eta, gainera, orain oso polita dago herria. Azken urtean asko hobetu da. Ni behintzat, primeran bizi naiz Elgoibarren.



Manuel Amaro
47 urte, konstruktorea

Bai. Eibartarra naiz, baina Elgoibar gehiago gustatzen zait bizitzeko. 13 urte daramatzat hemen, eta gehienok ezagutzen gara. Herri txikia da, tamainakoa. Herritik irten gabe, denetik eskuratu daiteke. Guk eroketa guztiak bertan egiten ditugu. Bizi-kalitate ona daukagu.



Maite Barandiaran
38 urte, idazkaria

Bai, betidanik bizi naiz Elgoibarren, eta gustura nago. Umeentzako erropak erosteko ez dago aukera handirik, baina bestela, denetik daukagu. Mendiz inguratuta gaude, eta paseatzeko lekua ere badago. Beti hobetu daiteke zeozer, baina Elgoibar asko hobetu da azken urteotan.



Nerea Cuende
17 urte, ikaslea

Bai. Gazteentzako gauza asko antolatzen dira, baina jendeak ez du parte hartzen. Asteburuetakoa giroa jaitsi egin da, eta lokalean egoten gara, batez ere. Bizitzeko ondo dago Elgoibar, baina jantziak erostera, adibidez, kanpora joaten gara merkeago dagoelako.

BARRENeko erretratuak salgai!

BARREN astekarian edo www.elgoiBARREN.net atari digitalean argitaratzen diren erretratuak erosteko aukera daukazu (erretratu bakoitza 2 euro).

Nafarroa enparantza, 2 - Elgoibar - Tel.: 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.com

DEKORAZIO

GEHIGARRIA

Norberaren etxebizitza dekoratzea prozesu paregabea da. Gure etxeak berotasuna eta babesa ematen du. Garrantzitsua da, beraz, etxeo dekorazioarekin gustura egotea; horregatik etxea bakoitzaren pertsonalitatearen eta gustuaren arabera dekoratzeko pertsona egokiena norbera da. Hala ere, guk aholku txiki batzuk emango dizkizuegu. Ondo pasa etxea dekoratzen!



Ibámar
ITURGINTZA

Floren Cid (647 463 436)

Bernardo Ezenarro 2, behea - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Erakusketa tel.: / Faxa: 943 531 847
E-mail: ibamar@euskainet.net

• BEROGAILUA
• GASA
• GASOILA
• AIRE EGOKITUA
• GREMIOEN
• KOORDINAKETA

• OSAGAIK
• MANPARAK
• ALTZARIAK
• ERREFORMAK

Alfonbra hau ala bestea?

Hilabete hotzetarako alfonbrak bezalakorik ez dago, etxea kolorez eta goxotasunez girotzeko. Etxeko osagai horrek neguan hartzen du protagonismoa, bai gure logeletan eta baita gure egongeletan ere.

Etxeko zati garrantzitsuena izaten jarraitzeko duen abantailarik handiena beroa mantentzeko duen ahalmena da. Ehun hauekin haurrak dira onuradun handienak, leunak baitira. Hala ere, gaur egun gehiago erabiltzen dira apaingarri gisa, beroki - babes gisa baino.



AUKERATU ALFONBRA EGOKIA

Alfonbra aukeratzeko orduan, hainbat irizpide eduki behar dira kontutan eta horietako bi kalitatea eta itxura dira. Fabrikazioaren, irutearen eta kolorearen datuak jakitea, edo estanzazioa informazio garrantzitsua dira azken erabakirako. Argi dago, alfonbra egokiaren aukeraketan prezioaren eta kalitatearen artean harreman egokia izatea beharrezkoa dela, baita gure etxebizitzaren ezaugarrietara egokituko den alfonbra izatea ere.

Gure helburua etxerako alfonbra bat bilatzea bada, alfonbra klasiko edota abangoardista bat aukeratu dugu, hau da, bere itxurari arreta gehiago jarriko diogu. Bestalde, bulegorako edo lanarekin zerikusia duen zerbaitetarako behar badugu piezari, erresistentziari, mantenuari eta kontserbazioari begiratuko diogu.

SANTANA

Igor Santana
 ALFONBRATZEHARRIEN ENTEKORAZIOA S.L.
 Urusendi kalea 11. behea
 Tel.: 943 740 830
 905 714 905
 Faxa: 943 531 825
 igorsantana@ovskahel.net
 20879 Elgoibar (Gipuzkoa)

- Amiantoa
- Fibrozementoa
- Gasa
- Berokuntza
- Klimatizazioa
- Elektrizitatea
- Eguzki energia

MAR AROZTEGIA

- Etxe barruko ateak eta blindatuak
- Tarimak eta parket flotatzaillea
- Horma-armairuak
- Sukaldeak eta etxetresna elektrikoak

Tel./Faxa: 943 531 471
 Mugikorrek: 609 054 978
 646 905 564
 Olaso poligonoa 15, 55 CH
 l_rua8@hotmail.com

ETORRI ZAITEZ ETA ESKA EZAZU AURREKONTUA

IPINTZA MARGOAK S.L.

- 000 Pladurra
- 000 Gortinak eta alfonbrak
- 000 Fatxada zaharberritzeak
- 000 Lur eta hormen era guztietako estaldura arinak

SAR ZAITEZ ETA ESKATU AURREKONTUA!

Xixilion P-2 • 2.solairua, 11 zbk. • Foruen plaza, 4. • Biltegia: Errosario kalea,7
 Tel.: 943 74 04 40 • 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa) • ipintzamargoak@hotmail.com

LURRA KOLOREZ ESTALIA

Tonuak gure azken erabakian sekulako pisua izango du, puntu guztiz garrantzitsua baita: logela eta alfonbren artean armonia bat egotea ezinbestekoa da, baita gelak argitasuna izatea ere.

Argi gutxiko gela baterako, kolore argiak aukeratuko ditugu: beixa, horia, edo berde argia. Izan ere, kolore argiek handiagoa eta zabalagoa egiten dute gela. Gainera, kolore argietan oinatzak gutxiago antzematen dira. Estantatu hotz eta ilunek, berriz, ikutu erosoagoa ematen diote gelari, orbanak ezkututzen dituzte, eta egongela eta pasilloetarako egokiak dira.

ZEIN DA EHUN EGOKIENA?

Lehen eskuz edo oinarri-oinarrizko ehundegitan egiten ziren, baina gaur egun makina oso modernoak ditugu horretarako. Ondorioz, askoz aukera zabalagoa dago. Batetik, moztutako ileak dituztenak daude. Oso leunak izaten dira horiek, eta primerakoak dira ia inguru gehienetarako. Ederrak dira oso, eta egongela edota jangela izaten dira mota horretako alfonbrak jartzeko gelarik egokienak.

Kiribil motako alfonbrak beste aukera bat dira. Oso eleganteak eta epelak dira, etxe eleganteetarako artisauro-lan paregabeak. Zuntza ere aspalditik erabiltzen den beste material bat da. Aukera zabala dago: nylonezkoak, polipropileno edo oleo-finekoak, poliesterrekoak... Nylonezkoak egokiak dira oso mugimendu handiko lekuetarako. Polipropileno edo oleo finekoek, bestalde, ez dute aparteko mantenimendu lanik eskatzen, eta nekez galtzen dute kolorea. Azkenik, poliesterrekoak daude. Merkeak eta iraunkorrak dira.



 **E. ARANDIA**
ERREFORMA ETA LEIHOAK

- ◆ Erreformatz orokorrean (etxebizitza, garajeak, lokalak, ...)
- ◆ Debabarrenaeko leihoen montajea.

Urasandi, 22 behea - 20870 Elgoibar
Tel.: 605 705 204 - Faxa: 943 743 372

Burindegia Etxea
MIG MIG

Tel.: 943 740 831 - Trenbide kalea 9
Giltzak - Etxeko menajea - Opariak

Aroategia
ASIMA ASIMA ASIMA

Ateak-Tarimak-Armairuak-Sukaldeak-Eta abar...

Ermuzarabide behea, 18 Asier 650 026 631
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa) Imanol 687 150 226
Tel./Faxa: 943 74 42 25 Jose Angel 636 886 322

Lehen Aramar elektrizitatea, orain CARRANZA elektrizitatea
CARRANZA, C.B.
ELEKTRIZITATEA

Tel.: 943 741 280
Felix: 687 082 227
Jose Luis: 626 555 999

- 💡 Instalazio elektrizitate orokorrak
- 💡 Instalazio industrialak
- 💡 Atezain eta bideo-atezain
- 💡 Eguzki energia
- 💡 Domotika

Morkaiko kalea, 1
20870 Elgoibar
(Gipuzkoa)



Erabili koadroak etxea dekoratzeko

Etxeko gelek nortasun gutxi dutela iruditzen bazaizu, koadro batek itxura berria ematen lagunduko dizu. Koadroak beharrezko elementuak dira etxe bat dekoratzerako orduan. Gela bakoitzerako koadroak kontu handiz aukeratu behar dira, eta horretarako gomendioak aurkituko dituzu jarraian.

Lehenik eta behin, gelan sortu nahi ditugun giroa eta estiloa hartu behar dira kontuan. Ez dauka zertan modan dagoen estiloa izan, norberak bere bizimoduaren arabera estiloa eta giroa bilatzea da egokiena.


Bestalde, logela, egongela edo bulegoa dekoratzea ez da gauza bera. Oso argi eduki behar da gela horri emango diogun erabilpena. Behin hori erabakitakoan, orma margotzeko kolorea aukeratuko dugu. Adibidez, lasai egoteko gela izango bada, berde argia oso egokia izan daiteke. Bulegorako urdin argia kolore aproposa da, eta umeen logelarako hori sendoa.

Gelaren funtzioa eta kolorea erabaki ondoren, zein motatako pintura nahi dugun aukeratzeko unea izango da.

ESTILOA

Gela baten estiloa norberaren gustuen arabera izan behar da. Koadroek eta koloreek lagunduko digute gelak behar duen nortasuna lortzen. Bi elementu horien arabera, estilo klasikoa, modernoa, erromantikoa edo alai izango da gure gela.

Aukeratzeko irudiak edo marrazkiak beste sentsazio batzuk lortzen lagunduko digu: kolore bizidun koadroek entretenimendua emango digute. Txakurtxo eta katutxoaren irudiak oso ohikoak dira horrelakoetan. Marko metalikoak,



bestalde, modernitatea eskaintzen du. Gelari lasaitasuna eskaini nahi badiogu, kolore leuneko paisaiak dira egokienak. Nahi izanez gero, irudiak nahasteko aukera ere badago, norberaren estilo propioa lortzeko.

**Emilia
Nogales**
MARGOAK

Trenbide kalea 11, behea
Tel: 948 743 568
686 224 421



KOADROAK ORDENATZEKO

Gelaren estiloa lortzeko, oso garrantzitsua da koadroak leku egokian zintzilikatzea. Hona hemen aukera batzuk:

- **Museo modernoaren itxura:** Sarrera edo eskailerako gunean jarri behar dira koadroak. Pieza batetik bestera espazio handia egotea komeni da.
- **Sofaren gainean:** Koadro bat sofaren gainean jartzeko erabakia hartzen dugunean, gure begien parean ipintzea gomendatzen da.
- **Koadro multzoak:** Gelako puntu konkretu bati indarra emateko koadroak multzoka jartzeko aukera ere badago.
- **Koadroak ilaran:** Koadroak ilara horizontalean jartzeak oreka eskainiko dio gure gelari.



**PROIEKTU ETA
ERREFORMAK**

PLAN RENOVE

- Leihoetan
- Etxeko tresnetan
- Kalderetan

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

Arragueta 12 - EIBAR - Tel.: 943 200 698
Errosario 15 - ELGOIBAR - Tel.: 943 744 019



Gortinak: oihal zati bat baino gehiago

Dekorazioan atal garrantzitsua dira gortinak. Etxeko berotasunaren eta estiloaren oinarri izango dira, eta gela bakoitzaren nortasuna islatuko dute. Aukeratzan den oihal mota garrantzitsua da, baina kontu handiz aukeratu behar da baita ere gortina zintzilikatuko den barra. Gaur egun aukera zabala dago, eta kontu handiz egin behar da aukeraketa. Jarraian aurkituko dituzu gomendio batzuk.

Kotoia edo linoa bezalako material naturalek freskotasuna eta estilo modernoa ematen diote etxeari. Gasak edo setak, bestalde, estilo klasikoa eta erromantikoa eskainiko digu.

Oihal sendoak eta dekorazio asko dituztenak dotoreak dira, eta garaiko estiloa eskainiko dute. Zaku oihalak, berriz, baserri estiloa emango dio etxeari.

ESTOREAK

Espazio txikietarako baliabide onak dira estoreak, izan ere, leku gutxi hartzen baitute. Giro moderno eta minimalista lortzeko erabiltzen dira. Estorearen oihala kontu handiz aukeratu behar da, izan ere, estorea jasotzerakoan irudia tolestuta geratzen da eta lortzen den emaitza oso diferentea izan daiteke.



VEZEIARRAK

Pertsiana veneziarren laminak argiaren arabera mugitu daitezke, eta horrela, argi kantitatea neurtu dezakegu. Hainbat materialetako pertsianak aurkituko ditugu merkatuan: egurra, pvz, altzairua... Eta koloreari dagokionean, geuk nahi dugun guztia egiteko aukera dago. Lantokietarako egokiak dira.


JAPONIAR ESTILOKO PANELAK

Ekialdeko estiloa dauka estore honek. Euren artean gurutzatzen diren estoreez osatzen da, eta argia pasatzen

lagatzeko, estore bat bestearen gainean jartzen da. Oihal sendo edo arinak erabili daitezke. Marraskia ere edozein aukeratu daiteke, izan ere, luze jartzen dira, eta ondo ikusten da estorearen dekorazioa.

GORTINA HANDIAK

Oihal sendoko gortina handiak dira, eta bere funtzioa estetikoak izaten da. Leihoaren alde banatan jartzen dira, erdiko aldea libre utziz. Normalean, zaku-oihala edo loneta erabiltzen da. Kolore eta marrazki biziak aukeratzan dira.



KU KOLOREA

- BARNE DISEINUA
- PINTURA TEKNIKA DESBERDINAK
- IZTUKUAK
- FATXADAK ZAHARBERRITZEA
- OHOLTZA FLOTAGARRIA

Urasandi 26, behea - 20870 ELGOIBAR - Tel.: 660 522 587 - 943 748 843



Luis F. Beristain
 korporazioa
XEY
FORMA
 banatzaile ofiziala

ETXEKIT

12 urteko bermea

Arrilaga z/g - Elgoibar
 Tel. 943 74 43 47

PAGOERROTA

iturgintza

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza




Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)
 Tel.: 943 75 60 44 - Faxa: 943 75 60 37 - Mugikorra: 659 334 323
 E-mail: pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com - www.pagoerrotaiturgintza.com

ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA

Oihane Osoro Kaperotxipi



OSOKA

- ALTZARIAK NEURRIRA
- HORMA-ARMAIRUAK
- ALTZARIAK: KOMUNERAKO, SUKALDERAKO, EGONGELARAKO, ...
- ATEAK
- ZORUAK
- ERREFORMAK

Denda berria ireki dugu, zatoz eta eskatu informazioa konpromezurik gabe



San Frantzisko, 54 behea
 20870 ELGOIBAR
 Tel. / Faxa: 943 748 918
 Mugikorra: 687 694 264

LAGA ZURE ETXEA PROFESIONALEN ESKU

AROTEGIAK



IMAR

Olaso poligonoa 15,
55-CH / 20870 Elgoibar
i_rua8@hotmail.com
☎ / Faxa: 943 531 471
☎ 609 054 978
☎ 646 905 564

BIENA

Ermuaranbide
12-14-16 behea
20870 Elgoibar
☎ 943 743 116

ELEKTIKARIAK



CARRANZA

Morkaiko kalea, 1
20870 Elgoibar
☎ 943 741 280
Felix: 687 082 227
J. Luis: 626 555 999
Joxe: 699 743 603

JOSEBA

Urasandi, 22
20870 Elgoibar
☎ 659 934 964

LODOSO LEIHOAK

Sigmako industrialdea
Xixilion, 2. pabilioia, 3.zb.
20870 Elgoibar
fjldoso@euskalnet.net
☎ 943 743 490
Faxa: 943 747 312

ASIMA

Ermuaranbide,
18 behea
20870 Elgoibar
☎ / Faxa: 943 744 225
☎ 650 026 631
☎ 687 150 226
☎ 636 886 322

A.GONZALEZ

San Frantzisko, 43
20870 Elgoibar
☎ 619 423 197

IGELTSEROAK



E. ARANDIA

Urasandi, 22 behea
20870 Elgoibar
☎ 605 705 204
Faxa: 943 743 872

PAGOERROTA

Herriko enparantza,
10 behea
20850 Mendara
☎ 943 756 044
☎ 659 334 323

SANTANA

Urasandi, 17 behea
20870 Elgoibar
igorsantana@euskalnet.net
☎ 943 740 530
☎ 605 714 905
Faxa: 943 531 825

PINTOREAK



IPINTZA

Xixilion P-2 / 2.solairua,
11 zb. / Foruen plaza,4
Biltegia: Errosario kalea,7
20870 Elgoibar
ipintzamargoak@hotmail.com
☎ 943 740 440

ITURGINAK



ONGI

Pedro Muguruza
etorbidea,11 behea
20870 Elgoibar
☎ 943 254 522

IBAMAR

Bernardo Ezenarro,
2 behea
20870 Elgoibar
☎ / Faxa:943 531 847

JOSE (Chema)

Basarte, 5 behea
20870 Elgoibar
☎ 943 741 255
☎ 629 442 314

KU KOLOREA

Urasandi, 26
20870 Elgoibar
☎ 943 748 843

BIOK

Upaiz-zaharra
20870 Elgoibar
www.biokdekorazioa.com
☎ 943 741 552
☎ 606 431 120

DEKORAZIOA



ESTUDIOS ARRILLAGA

Errosario 15
20870 Elgoibar
☎ 943 744 019

EMILIA NOGALES

Trenbide, 11
20870 Elgoibar
☎ 943 743 568

OSOKA

San Frantzisko,
54 behea
20870 Elgoibar
☎ / Faxa: 943 748 918
☎ 687 694 264

ETXEKIT

A. Arrillaga, z/g
20870 Elgoibar
☎ 943 744 347

TEXTIL HOGAR

San Roke, 20-22
20870 Elgoibar
☎ 943 744 457

MG

Trenbide, 9
20870 Elgoibar
☎ 943 740 831

NUVAN

Bernardo Ezenarro, 17
20870 ELGOIBAR
943 747 414




Olioa birziklatzeko edukiontzia falta dira herrian: “Birziklapenari garrantzi handia ematen zaio gaur egun, eta horren aldekoa naiz neu ere, baina herritarrei erraztasunak ipini behar zaizkie, bestela oso zaila da ohiturak aldatzea. Zaborra bereizteko edukiontzia jarri dituzten bezala, olioa birziklatzekoak ere jarri behar dira. Badakit hilean behin etortzen dela olio biltzeko kamioia, baina jende asko ezin izaten da ordu horretan kamioira gerturatu. Bestalde, piletzako edukiontzi gehiago jarri behar direla iruditzen zait. Eskerrik asko”.



Pilar ikastetxera joateko lurrazpiko pasabidea oso zikina egoten da: “King-Kong aldetik Pilar ikastetxera joateko pasabidea zikinkeriaz beteta egoten da, astelehenetan, batez ere. Horrez gain, armiarma sare asko dago. Zubi zahar guztia egoten da zikina eta gaizki zainduta. Eskertuko genuke ingurune hori gehiago zaintzea”.



Aizkorri kaletik Santa Klarara irteko bide-gurutzean lorontziak jarri dituzte: “Udaleko arduradunei txalo bat eman nahi diet, Aizkorritik Santa Klarara irteko bide-gurutzean lorontziak jarri dituztelako. Horrela, ezin dira autoak espaloi gainean aparkatu, eta askoz hobeto ikusten da errepidea. Makina bat susto izan da bertan, eta baita istripu larriren bat ere. Santa Klarako beste bidegurutzeetan ere zerbait egiteko eskatuko nioke Udalari”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12



Gotzon Garateren bizitzaren eta obren errepassoa egin du Miel Anjel Elustondok

Euskararen jatorriaz ariko da Juan Martin Elexpuru hurrena


Gotzon Garate idazle eta euskaltzalearen omenezko hitzaldi-zikloaren barruan, Miel Anjel Elustondo idazle eta argazkilarik *Eskerrik asko, Gotzon. Gotzon Garate, bidegile* izenburuko hitzaldia eskaini zuen eguaztenean Kultur Etxean. Gotzonen bizitza eta haren obraren gaineko errepassoa egin zuen Elustondok, eta hitzaldia zuzenean jarraitu ahal izan zen www.elgoibarren.net atarian. Era berean, Bidegileak bildumarako idatzitako *Gotzon Garate Goiartzun* liburua ere aurkeztu zuen. Hitzaldian izan zirenek doan jaso zuten Elustondoren liburu hori, baina interesa dutenek, eta hitzaldian egoterik izan ez zutenek, Kultur Etxean eskuratu ahaliko dute liburu hori aurrerantzean, debalde.

Euskararen jatorria aztergai

Eguaztenekoa Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak eta Udalak elkarlanean antolatutako programako lehenengo hitzaldia izan zen. Datorren eguaztenean, hilaren 28an, izango da bigarrena, Juan Martin Elexpuru idazle bergararraren eskutik. Euskararen jatorriaren inguruko teoria eta hipotesiak aztertuko ditu, *Euskararen jatorria, zalantza artean igeria* izenburuko hitzaldian.



Miel Anjel Elustondo eta Iñaki Lasa.



Juan Martin Elexpuru.

Noiz hasi zen gizakia hizketan? Badago jakiterik euskara non eta noiz sortu zen? Ekain eta Lascaux-ko biztanleen hizkuntza ote zen? eta antzeko beste zenbait galderari erantzuten saiatuko da. Aurrekoa moduan, Kultur Etxean izango da hitzaldi hau ere, arratsaldeko zazpiretatik aurrera.

‘Las vacaciones de Josefa’ antzezlan eskainiko du Txalo konpainiak eguenean, Herriko Antzokian



Herriko Antzokiko egitarau oparoaren barruan, *Las vacaciones de Josefa* antzezlan ikusteko aukera izango da eguenean, urriaren 29an. Parisen arrakasta handia lortzetik datoz Txalo konpainiak, “elgoibartarrak barrez leharazteko gogoz”. *Las vacaciones de Josefa* obran hainbat istorio kontatzen dituzte, drama ikutukoak denak ere, baina umore handiz landuta.

Bi sesio izango dira, 20:00etan eta 22:15etan, eta sarrerak Servikutxa, Telekutxa (943 001 200) eta Internet bidez erosi ahaliko dira aurrez, edota takilan, egunean bertan.

Bertsolari Txapelketako finalerako sarrerak salgai daude Elgoibarko Izarran

Abenduaren 13an jokatu da BECen Bertsolari Txapelketako finala, eta sarrerak Elgoibarko Izarran eros daitezke. Goizeko 11:00etan hasiko da goizeko saioa, eta, bazkaltzeko atsedena hartu ondoren, 16:30ean ekingo zaio arratsaldeko saioari. Egun osorako sarrera 26 eurotan eskura daiteke. Hala ere, sarreraz gain, autobuserako txartela eta bazkaritarakoa ere jarri dituzte salgai, 12 euro eta 20 eurotan, hurrenez hurren. Ez dago, hala ere, txartel guztiak erosi beharrik.

Euskal dantzen ikastaroan izena emateko epea zabalik dago oraindik

Astelehenean hasi zen Elgoibarren euskal dantzen ikastaroa, baina aukera dago oraindik ere izena emateko. Haritz Euskal Dantzari Taldeak eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak antolatzen dute ikastaroa, eta 30 euro balio ditu. Aste bi orduko eskolak izango dira, eta fandango eta arin-arinez gain, herri dantzak ere irakatsiko dituzte. Astelehen eta eguaztenez izango dira hasiberrientzako klaseak, eta astelehen eta eguenean, lehendik ibilitakoentzakoak. 21:00-22:00ak bitartean izango dira klaseak, hasiera batean, baina taldean adostuko da gero aurretik edo beranduago hasi. Argibide gehiagorako, deitu 943 742 145 telefono zenbakira.

Jubilatuaren dantzaldia Kultur Etxeko Sotoan izango da aurrerantzean

Eguneko zentroa handitzeko, jubilatuaren egoitzari jan diote zati bat, eta, ondorioz, domeketako dantzaldirako leku gabe gelditu dira han. Hori dela eta, aurrerantzean Kultur Etxeko Sotoan egingo dute dantzaldia, Eguren orkestrarekin, ohi bezala, 18:30etik 21:00ak arte. Pintxoak eta edatekoa ere banatuko dituzte Sotoan.

Carmen Perea irabazi du bigarren ez Donostiako 15 kilometroko lasterketa

Emakumezkoetan zazpigarren egin zuen iaz Behobian

Carmen Perea elgoibartarrak irabazi zuen joan zen astean Donostian jokatu zen hamabost kilometroko lasterketa, 58 minutu eta 38 segunduko denbora egin da. Iaz ere berak irabazi zuen, eta orduko marka ontzerik lortu ez duen arren, bera izan zen azkarrena, Izaskun Zubizarreta eta Ana Zelaietaren aurretik. Iraupen erdiko probetan lorpen ugari lortu zituen Perea 90eko hamarkadan, Ego-Toki eta Atletico S.S. taldeen elastikokoekin, eta haren markak Gipuzkoako onenen artean daude oraindik ere. Iaz, Behobia-Donostia lasterketan zazpigarren sailkatu zen emakumezkoetan, 1:21:38ko denborarekin.



Behobia-Donostia lasterketarako autobusak jarriko ditu Elgoibarko Kirol Patronatuak

Azaroaren 8an jokatu da Behobia-Donostia herri-lasterketa entzutetsua, eta Elgoibarko Kirol Patronatuak autobusak jarriko ditu egun horretarako. 8:30ean irtingo dira autobusak, King-Kong pareko autobus geltokitik, eta aukera hori baliatu nahi duenak, azaroaren 6ko eguerdira arteko epea du izena emateko. Olaizaga kiroldegian egingo dira izen-emateak. Kirol Patronatuko bazkideek 12,50 euro ordaindu beharko dute autobuseko txartelagatik, eta bazkide ez direnek, berriz, 15,50 euro.

Behar bereziak dituzten haur eta nerabeentzako kirol eta aisialdi eskaintzak sustatuko ditu Udalak



Kirol egokitua ezagutzera emateko ekainean egin zen ekitaldi bat.

Behar bereziak dituzten ume zein nerabeen gizarteratzea bultzatzeko eta gainerako hurrekiko aukera berdintasuna bermatzeko, programa berezia jarri dute martxan Elgoibarko Udaleko Gazteria, Ongizate eta Kirol Sailek, elkarlanean. Gaztelekua, ludoteka eta kirol instalakuntzak haien beharretarako egokitu dituzte. Eskaintza guztiak elgoibartarrei edo Elgoibarren ikasten diharduten haurrei eta nerabeei zuzenduta daude.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Baskonia 0 (3. maila)
 Elgoibar 1 – Urola 2 (Pref.)
 Zumaia 0 – Elgoibar 3 (jub)
 Arizmendi 1 – Elgoibar 4 (Kad. A)
 Elgoibar 0 – Lagun Onak 6 (Kad. B)
 Elgoibar 3 – Urola 4 (Txiki)
 Elgoibar 3 – Amaiak Bat 0 (Neskak)

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
 Lapke 2 – Lagunak 22 (1. maila nag.)
 Lagunak 22 – Bergara 16 (2. maila nag.)
 Lagunak 7 – Añorga 22 (2. maila jub.)
 Añorga 17 – Lagunak 25 (Pala Nag.)

ARETO FUTBOLA

La Bellota 2 – Concepto Createch 2

SASKIBALOA

Lek Arrasate 12 – Anbolo 20

ESKUBALOA

Grupo Eibar Elg. 24 – Aiala Zarautz 29 (Jub. nesk.)
 IMH Elg. 15 – Aiala Zarautz 27 (Kad. nesk.)
 Eibarko Haritza 25 – Alkorta Elg. 24 (Sen. mut.)
 Lauko Elg. 26 – Pulpo 28 (Kad. nesk.)
 Peneumax Elg. 34 – La Bacaladera 17 (Kad. mut.)
 Aterpe Elg. 18 – TCasa Astigarraga Elg. 3 (Inf. nesk.)
 Bankoa Elg. 21 – Pulpo 243 (Inf. mut.)
 Legazpi 3 – Ikus 30 (Inf. mut.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 24
 16:00 Concepto Createch– Santurtzi

SASKIBALOA (Ikastolan)

Zapatua, 24
 13:00 Anbolo– Comercial Zabala ISB

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 24
 11:00 Elgoibar – Iintxa (Ohorezko inf.)
 12:30 Elgoibar – Iintxa (Kad B.)
 16:30 Elgoibar – Beasain (Ohorezko jub.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 24
 17:30 Grupo Eibar – Usurbil K.E. (Jub. nesk.)
 19:00 IMH – Usurbil K.E. (Kad. neskak)
 12:30 Ikus – Aterpe (Infantil neskak)
 11:00 Hotel Txarriduna – Pulpo B (Infantil mutilak)

PILOTA

Barixakua, 23
 21:15 Lagunak – Eskoriatza (2. maila kad.)
 22:00 Lagunak – Aretxabaleta (2. maila nag.)
 22:30 Lagunak – Alde Zaharra (Pala nag.)
 Domeka, 25
 17:00 Lagunak – Behar Zana (1. maila nag.)

IDARRAGA SARIAK

- Guinea 26 puntu.
- Pinilla..... 23 puntu
- Aritz Garate 15 puntu
- Gutierrez 14 puntu

LANA

ESKAERA

- Emakume euskalduna eskaintzen da pertsona nagusiak, gaixoak eta ezinduak zaintzeko. Eskarmentua du. Josefina. ☎615 762 742
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎626 329 979
- DBHko gaztelania eta matematikako klase partikularrak ematen dira. Talde txikiak, Esperientziaduna. ☎943 744 206
- Emakumea lan bila. Nagusiak eta haurrak zaintzen, eta parkinson gaixotasuna duten pertsonekin esperientzia dauka. ☎679 317 981
- Neska gaztea etxeko lanak egiteko, haurrak zaintzeko edo dendari lanetarako prest. Esperientziaduna. ☎943 254 398
- Emakumea sukaldari laguntzaile lanetarako, gauez pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. ☎645 461 600

- Emakumea haurrak zaintzeko edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎648 603 029

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

ALOKAIRUA

- Pisu bat osatzeko gazte bat behar da, Elgoibarren. Gela bat alokatzen da. ☎610 458 552
- Mendaron pisua konpartitzeko emakumea behar da. ☎636 523 807
- Emakumea, pisua konpartitzeko logela bilatzen ari da. ☎616 288 897
- Zaldibar eta Durango aldean alokairuko etxebizitza bila nabil. ☎667 317 399
- Bi logelako etxebizitza alokatu nahiko nuke Elgoibarren. ☎943 530 266

MOTORRAK ETA GARAJEAK

- Pista beltzean marradun garajea alokatzen dut. ☎653 863 482
- Mercedes Vito furgoneta prestatuta saltzen da. Aukera ona. ITV-a pasata. ☎652 727 631

BESTELAKOAK

- Katua oparitzen da, persa arrazakoa, grisa, lau urte ditu. Bakuna guztiekin. ☎650 854 917
- "Polverini" markako trikitixasaltzen da. 4 ahotsetakoa. Beltza. 1.400 euro. ☎688 676 507
- Gotzon Garateren omenaldian aterki bat ahaztu zitzaigun Musika Eskolan. Norbaitek aurkitubadu, deitu dezala. ☎943 741 531

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburrak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak
Astebete : 5 euro
2 aste : 8 euro
3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
Astebete : 10 euro
2 aste : 17 euro
3 aste : 25 euro

AIRETIK ATERATAKO ERRETRATUAK SALGAI!!
 Eskatu zeurea!
 Informa zaitez
 943 744 112 telefonoan. **B**

Jarri ezazu zure publizitatea

B
BARREN
astekarian
 943 743 704



• Zorionak, **Eider**, martitzen 5 urte egin zenituelako. Ahizpa Naroa eta familiakoen partez.




• Zorionak, **Nerea**, zure 14. urtebetetzean. Muxu asko gurasoen eta ahizpa Albarren partez.



• Zorionak, **Ainara**, bihar 5 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Maialen**, bihar 2 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Aimar**, gaur 2 urte egin dituzulako. Etxekoan partez, ondo pasa eguna.



• Zorionak, **Markel**, igandean 9 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoan partez.



• Zorionak, **Garazi**, atzo 13 urte egin zenituelako. Familiakoan partez.




• Zorionak, **Ayelen**, bihar 2 urte egingo dituzulako. Bi muxu handi familiakoan partez.



• Zorionak, **Janire**, urriaren 27an 4 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Ainhize**, 9 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiakoan partez, bereziki, aittita eta amama.



• Zorionak, **bikote**, 60 urte egin dituzuelako elkarrekin. Muxu handi bat familiakoan partez.



• Zorionak **Dunari**, gure printzesari, domekan, hilak 25, 2 urte beteko dituelako. Muxu handi bat, maitia.

OHARRA

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OKINDEGIA

25 domeka **FOTERO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 23 Garitaonandia
- 24 Etxeberria (Santa Ana)
- 25 Etxeberria (Santa Ana)
- 26 Fernandez
- 27 Yudego
- 28 Zabaleta
- 29 Etxeberria (Errosario)
- 30 Ibañez

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638


Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik
www.elgoiBARREN.net
atarian



«Pagafantas»

23, barixakua: 22:15
24, zapatua: 19:00/22:15
25, domeka: 19:00
26, astelehena: 21:30

23 barixakua

Erakusketa

19:00 Gotzon Garateren lanak
Gaur izango da Gotzon
Garateren lanei buruzko
erakusketa ikusteko azken
eguna. 21:00ak arte egongo da
zabalik. Kultur Etxean.

Martxa

19:00 Baserritar Gazteen
Martxa
Akuilu taldeak antolatuta,
Baserritar Gazteen Martxa
iritsiko da Elgoibarrera.

Mahaingurua

19:30 Baserritar Gazteen
esperientzien elkartrukea
Baserritar Gazteen Martxa dela-
eta, mahaingurua egingo dute
euren esperientziak
elkartrukatzeko. Kultur Etxean.

25 domeka

Mendi irteera

10:00 Indamendira irteera
Elgoibar Ikastolako Guraso
Taldeak antolatuta, Indamendira
egingo dute irteera.

Donostiara irteera

9:45 Aquariumera eta
Kutxaespaziora irteera
Altzolako Zubibai elkartekoek
antolatuta. Altzolatik irtengo dira
goizean, eta eguna Donostian
pasatu ondoren, 19:00etan
itzuliko dira.

Musika

12:30 Musikeneko Bandaren
kontzertua
Musikeneko Banda Sinfonikoak
kontzertua eskainiko du Herriko
Antzokian.

26 astelehena

Arte tailerra

17:00 'Zelan ikusi koadro bat'
Haizea emakume taldeak
antolatuta, arte tailerra izango
da. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

27 martitzena

Tailerra

18:00 Literatura tailerra
Haizea emakume taldeak
antolatuta, '100 urte
bakardadean' liburuaren analisia
egingo dute. Udal Liburutegian.

28 eguaztena

Hitzaldia

19:00 'Euskararen jatorria'
Gotzon Garateren omenez
antolatutako hitzaldi zikloaren
baitan, euskararen jatorriari
buruzko hitzaldia eskainiko du
Juan Martin Elexpukur. Kultur
Etxeko hitzaldi gelan.

29 eguena

Antzerkia

20:00 'Las vacaciones de
Josefa'
Txalo Produzioak taldeak 'Las
vacaciones de Josefa'
antzezlan taularatuko du.
Herriko Antzokian.

30 barixakua

Erakusketa

19:00 Argazki erakusketa
Ongarrik antolatuta, Roberto
Botijaren 'Paisajes al margen'
argazki erakusketa. Kultur
Etxean.

Euskal Herria, 2009. Zuz.: Borja Ko-
beaga. Akt.: Gorka Otxoa, Sabrina
Garcarena. 80 min.

Pagafantas mutiko gizajo bat da,
neska lirain baten alboan ibiltzen de-

na. Mutikoak jai dauka neska horre-
kin, baina, badaezpada, haren ondo-
an jarraituko du. Neskak lagun gisa
maite du eta ez du ikusten «arrisku
sexual» gisa.



ORDU ALDAKETA, ASTEBURUAN

ASTEBURU HONETAN NEGUKO ORDUTEGIAN SARTUKO GARA, BERAZ, ORDU ALDAKETA EGIN BEHARKO DA. ZAPATUTIK DOMEKARAKO GAUEAN ORDULARIAK ORDUBETE ATZERATU BEHAR DIRA, HAU DA, GOIZEKO 3:00ETAN 2:00AK IZANGO DIRA.



Zerikasi

IKASTAROAK

Ordenagailu bidezko 3D diseinua

Norentzat: Mekanikan edo delineazioan aritutakoentzat
 Hizkuntza: Gazteleraz
 Hasiera data: 2009-10-26
 Non: Elgoibarren
 Izen-emate bukaera: Urriak 26

Sutan egindako esmalte ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
 Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz
 Hasiera data: 2009-10-26
 Non: Elgoibarren
 Izena emateko: 943 740 844 (18:00etatik 20:00etara)

Reiki ikastaroa (hastapena)

Norentzat: Interesatuentzat
 Hizkuntza: Gazteleraz
 Hasiera data: 2009-10-31
 Non: Eibarren
 Izena emateko: 665 743 217 (Martin)

Coaching: jarrerak lantzeko ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
 Hizkuntza: Gazteleraz
 Hasiera data: 2009-12-09
 Non: Elgoibarren
 Izen-emate amaiera: Abenduak 12

Web diseinua

Norentzat: Web guneak diseinatzen dituztenentzat
 Hizkuntza: Gazteleraz
 Hasiera data: 2009-11-30
 Non: Elgoibarren
 Izen-emate amaiera: Azaroak 30

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

Kala

LORADENDA

Santu Guztien egunerako

- Hilerirako zentroak
- Lore sortak
- Hilerrietan urte guztian landareen mantenua

San Frantzisko, 24
 Tel.: 943 744 516



«Ice age 3»

25, domeka: 16:30

Estatu Batuak, 2009.

Zuzendaria: Carlos Saldanha. Ma-
 rrazki bizidunak.

Iraupena: 100 min.

Diego eta haren lagunaren abenturen hirugarren zatia. Lurpeko mundu misteriozkoan barneratuko dira oraingoan, Sid salbatu ahal izateko.

Erretratu zaharra



1959

Aste honetako erretratu Maria Dolores Etxeberriak lagatakoa da. 1959. urtean ateratakoa da, Jaime Azpiazu eta Pilar Arrieta *Leruntxikiren* ezkontza egunean, hain zuzen ere. Argazkian ikusten den bezala, gazte koadrila ederra bildu zen egun hartan. Denak dotore-dotore jantzita, umore onean pasatu zuten eguna. Gogora ditzagun argazkian azaltzen direnen izenak:

Goian, ezkerretik eskumara: Maria Arrieta (†), eta Mari Carmen Gabilondo.

Erdian: Arrate Artamendi (ei-bartarra), Pilar Arrieta, Jaime Azpiazu (†), Maria Dolores Etxeberria eta Auxi Arruza (†).

Behean: Miren Opakua eta Karnele Gorostiza.

Gure berbak

Hiztegixa: animalixen izenak (4)


Animalixen izen gehiago ekarri nahi dittut gaurkuan ere; hona, hurrenkera alfabetikua erabiliz, hurrengiak:

- ◆ **KUI, kuia:** “Conejo de indias”.
- ◆ **KUKARATXA, kukarabxia:** “Cucaracha”.
- ◆ **KUKU, kukua:** “Cuco”. Kukuaren markia tapau: Kukuaren marka ondu: kukuak aldi baikoitzeko kume bat hazten duenez, ume bakarra daukatenei esan ohi zaie horrelako zerbait: *Pozik habill euki duan umiak, baiña oindiok eztok kukuaren markia tapau, e!* Ume bat daukanak ere esan ohi du: *Nik kukuana ein jonat.* **Kukuak jo (norbait):** Zorte ona izan. **Kukuak oker jo (norbait):** Zorte txarra izan. **Kukuari begira egon:** Ezer egiten ez egon.

- ◆ **KULIXKA, kulixkia:** “Chorlito”. **Kulixka haundixa** eta **Kulixka txikixa**.
- ◆ **KUMA, kumia:** Animalia jaiot berria. Atzizki moduan gehienetan, animalien umeak: **txakurkumia, txarikumia, katakumak...**
- ◆ **KURRILLO, kurrillua:** “Grulla”. Baita **Grulla** aldaeran ere.
- ◆ **LORITO, loritua:** “Loro”. *Hil dok Ego-toki soziedadeko loritua, Anbolo izenekua.*
- ◆ **MAASMA, maasmia:** Armiarma. **Armiarmia** ere bai. **Maasma-saria** ere erabiltzen da **armiama-saria** eta **amarauna-rekin** batera.
- ◆ **MAMORRO, mamorrua:** Zomorroa, “insecto, bicho, gusano”. **Mamarrua** aldaera ere bai. **Patata-mamorrua**.
- ◆ **MANDO, mandua:** iz. “Mulo, mula”.

- ◆ **MARIGORRI, marigorria:** Amona mantangorria.
- ◆ **MARTÍN ARRANTZALE, martín arrantzalia:** “Martín pescador”.
- ◆ **MATXISALTO, matxisaltua:** “Saltamontes”.
- ◆ **MENDI-OILLO, mendi-oillua:** Basoiloa, “sison”.
- ◆ **MIKA, mikia:** “Urraca”.
- ◆ **MINGOR, mingorra:** Istingorra, “becacín”.
- ◆ **MIRU, mirua:** “Milano”, hegazti harraparia.
- ◆ **MITXILIKOTE, mitxilikitia:** Tximeleta.
- ◆ **MIXI:** haur. Katua.

Jesus Mari Makazaga



HITZALDIA: “Euskararen jatorria, zalantza artean igerian”

“Noiz hasi zen gizakia hizketan? Badago jakiterik euskara non eta noiz sortu zen? Ekain eta Lascaux-ko biztanleen hizkuntza ote? Izotzak urtu ziren, eta Pirinio-Kantauri eskualdean bizi zen jendea alde guztietara zabaldu zen. Beste hizkuntza batzuekin harremana, Latina eta Euskara... Zalantza artean egingo dugu igeri euskararen itsasoan”.

Juan Martin Elexpuru

Urriak 28, asteazkena 19:00 Kultur Etxean

ELGOIBARKO IZABRA
KULTUR ERGARTEN



LODOSO LEIHOAK

Zure neurria egindako lana



- PVCa
- ALUMINIOA
- TERMIKOA
- ZURA
- ALUMINIOA
- POLIURETANOA

Sigmako industrialdea, Xixillon, 2. pabilioia, 3. zenbakia

Tel.: 943 74 34 90 Faxa: 943 74 73 12

www.lodoso.es

fjodoso@euskalnet.net




TEXTIL HOGAR - LAGUNAK

IZAPIDERIK ETA TRAMITERIK GABE

- %15etik %25erako deskontua egiten dugu koltxoietan, somierretan, ohe-eletrikoetan, arkoietan,...
- Koltxoi berria erosi eta horrez gain izarak edo koltxoi-estalkia erosiz gero, %15eko deskontua.

San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



MINTXETA

taberna

- ✓ PINTXO TRADIZIONALAK ETA BEREZIAK
- ✓ KAXUELITAK



ZATOZ ETA PROBA ITZAZU!

☎ 943 748 744